

## **Ikasleen iritzia ezagutzeko #IkaslePisuakZer kanpaina abiatu du EGK-k**

- COVID-19aren eraginez sortutako egoera arautzearen beharra azpimarratu du Kontseiluk
- Gazteei “ahotsa ematea, iritzi eta proposamenak biltzea eta irtenbideak bilatzeko esparrua sortzea” dira asmoak

*Donostian, 2020ko apirilaren 30ean.* Euskadiko Gazteriaren Kontseiluk (EGK) Euskadin pisua elkarbanatzen bizi diren gazteen errealitatea ezagutu eta COVID-19aren ondorioz bizi dugun egoeraren aurrean irtenbideak bilatzeko #IkaslePisuakZer kanpaina aurkeztu du gaur goizean. Azken asteetan hartutako neurrien artean “pisu hauen alokairuari buruzkoak” falta direla azpimarratu du EGK-k.

Aurkeztutako bideoan hiru gazteren testigantzak eta aldarrikapenak aurkeztu dituzte, besteak beste: administrazioak ikasleen pisuak arautzea, ikasle pisuen alokairua ordaintzen laguntzeko diru-laguntzak edo ordaindu duten maizterrei zein kobratu ez duten errentatzaileei bideratutako diru-laguntzak.

EGKtik COVID-19ak gazteen “bizitzako esparru guztietan sekulako eragina” izan duela azpimarratu dute eta administrazioari “zailtasunen aurrean laguntzeko” neurriak eskatu dizkiete. Erantzun partekatuak biltzeko espazio bat sortu nahi du elkarten plataformak, “gaia sakonki lantzeko eta antolatzeko”.

Parte hartu nahi duten ikasle zein gazteen esperientzietatik abiatu nahi du EGK-k. “#IkaslePisuakZer traolaren bitartez euren aldarria zabaltzera animatzen ditugu gazteak”. Era berean, sakontzeko aukera nahi dutenek hezkuntza@egk.eus helbidearen zein 688737133 zenbakiaren bitartez jar daitezke harremanetan EGKrekin.